



LE PETIT THEATRE DE PAIN taldeak Hedapen, produkzio eta koordinazio arduradun bat xekatzen du

Le Petit Théâtre de Pain 1994 urtean sortu den antzerki talde bat da, Luhuson kokatua, 8 antzerkilariz osatua, 2 teknikariz eta 3 administrazio langilez (hedapen/produkzio arduradun bat, administratzaile bat eta logistika, mediazio eta komunikazio arduradun bat). DRAC-aren konbeniopean da, eta Akitania Berria Eskualdeak sustengatzen du, baita Pirineo-Atlantikoko departamenduak, Euskal Herri Elkargoak, eta OARAK laguntzen du.

Gobernantza horizontala da, eta guztiz kolektiboa.

Kooperazio printzipio batetan eraikia, taldeak bere funtzionamendua etengabe egokitzen eta zehazten du, erabaki bakoitza kolektiboki pentsatuz eta trenkatuz.

Geletan eta espazio publikoan lan egiten dugu, sare desberdinetan (Scènes Nationales, kultur zentroak, baserri aldeak, auzo sentsibleak...)

Obrak kolektiboki ondu, gure garaiko emazte eta gizonen arrangurak adierazi, antzerki herritar eta exigente bat defenditu : hauek dira gure oinarrizko irizpideak.

Azken hamar urteetan, gure sorkuntza gehienak autore batekin eskuz-esku eremaiten ditugu, sorkuntza prozesuaren hastapenetik presente dena, taulatik hurbilen nahi dugun idazketa bat lortzeko.

Bestalde, lekuan lekuko idazketa proiektu batzuetan engaiatuak gara, baita epe luzeko eskualde proiektu batzuetan ere. Informazio gehiagorentzat : <https://lepetittheatredepain.com>

PTDP taldeak hedapen, produkzio eta koordinazio arduradun bat xerkatzen du. 2023ko hastapenean hasteko da lana ; tokian den presunak postuaren aurkezpena eta barne formakuntza segurtatzen ahal du lekukoa pasa arte.

MISIOAK :

PTDPko talde administratibo eta artistikoarekin elkarlanean, ondoko misioak ukanen dituzu :

➤ Difusioa

3 ikusgarri erreperatorioan, 11-13 pertsonako birak, eta hiru formatu ttipi.

40 ikusgarri data urtean gutti gora behera.

Bertako sarean, eskualdekoa, nazionala, geletan edo espazio publikoan (Scènes nationales, konbeniopeko egiturak, CNAREP, kultur zentroak, festibalak...).

- Filemaker Pro harreman sarearen zaintza eta eguneraketa (harreman profesionalak eta publikoak)
- Prospekzioa
- Difusio estrategiaren eraketa, taldearekin elkarlanean
- Sarearen berraktibaketak (mailing, telefono deiak)
- Debisak eta negoziaketak + daten eta baldintzen trenkatzea
- Egutegi orokorraren kudeaketa (birak, erresidentziak, mediazioak), antolatzaile eta talde artistikoarekin elkarlanean
- Biren tokietara joatea (hainbat aldiz hilabetean) eta hitz ordu profesionaletara
- Konpainia gomiten kudeaketaren segipena dataka
- Bilana : difusio taularen eguneraketa, publikoaren haga-neurtzailea, urteko biren bildumaren idazketa, eta bilan moralen difusioa

➤ **Produkzioa : partzuergoen bilaketa sorkuntzen produkzioarentzat**

Sorkuntza buxeta : 200 000 € eta 300 000 € artekoa

Sorkuntza taldea : 11 eta 20 pertsona artean

Sorkuntza « oso » bat, talde osoa biltzen duena, hiru urteetarik behin

- Sorkuntza proiektuaren segipena proiektuaren eremailearekin taldearen baitan : hausnarketa artistikoan eta gauzatze estrategian parte hartzea
- Hitzordu hartzeak, eta prospekzio joan-etorriak
- Produkzio partzuergoen bilaketa eta gauzatzea
- Erresidentzien trenkatzea ondoko hiru urteetarako

➤ **Koordinazio eta garapena – Misio partekatua**

- Mail-en kudeaketa
- Informazioen zentralizazioa eta difusioa taldearen baitan
- Epemugen kudeaketa, eta retro-egitarauena
- Talde bilkuren antolaketa eta bilanen osaketa
- Taldearen estrategia hausnarketetan parte hartzea : hilabeteko talde bilkura, etab.
- Eskualdeko proiektu batzuen segipena : hausnarketa, koordinazioa, partzuerrekin bilkurak
- Toki estrategikoetan presentzia (festibalak, ikusgarriak, bilkura profesionalak, etab): taldearen bozeramaile eta partzuer profesionalekin harremanak
- Komunikazio tresna eta estrategian kolaboratzea

PERFILA

- Taldearen proiektuaren ezagutza eta interesa
- Proiektu kulturalen koordinazioan formakuntza
- Difusioan esperientzia
- Disponibilitate handia joan-etorrientzat (bereziki asteburuetan eta arratsetan)

- Harreman gaitasunak
- Ahozko eta idatzizko adierazpenean gaitasun haundia
- Sintesia ispiritua
- Bertako paisaia kulturalaren eta instituzionalaren ezagutza, baita eskualdearena eta nazionala
- Giza kuriositatea, eta kuriositate artistikoa
- Talde lanerako gaitasunak, hainbat solaskiderekin
- Gida baimenaren ukaitea baloratuko da
- Zorroztasuna, metodologia, autonomia, erreaktibitatea
- Informatika gaitasunen ukaitea baloratuko da : InDesign, Pack Office, WordPress, FileMaker Pro (formakuntza posible da)

BALDINTZAK

- 2023ko hastapenean hasteko
- Kontratu mugagabea, kuadroa, CCNEAC konbenioa 4 taldea, hiru hilabeteko entsegu garai baten ondotik (behin arraberritu daitekeena, bi alderdien adostasunarekin)
- Denbora osoa (35 ordu)
- Saria : 2 170 € gordin
- Luhusoko Harri Xuri gelan kokatua den postua, telelan posibilitatearekin noiz behinka
- Ikusgarri eta erresidentzia data batzuetan joan-etorriak, baita hitzordu profesionalentzat (frexak PTDPren gain)

Zure CV eta motibapen gutuna 2022ko azaroaren 22ko igorri behar dira helbide huntara : leptdp@gmail.com

Informazio gehigarrientzat, ez duda gurekin harremanetan sartzea:
Elorri 06 30 89 39 82 zenbakian, edo Elise 06 84 06 61 59 zenbakian.